



Aireko trafikoak gorakada nabarmenekin jarraitzen du

Aireportuetatik igaro diren pertsonak
Urte bakoitzeko urtarriletik urrira. Milakoak




Iturria: AENA.

2024ko lehen hamar hilabeteetan, EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopurua %5,5 igo zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, ia sei milioi eta erdi pertsona lekualdatu ziren, serie historiko osoan aldi horretan inoiz izan den baliorik handiena.

EAEko KPI indizea %2,3an kokatu zen urrian

EAEko kontsumoko prezioen indizea (KPI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.


Urrian, KPIaren urte arteko aldakuntza tasa bost hamarren igo zen, %2,3an kokatu zen. Bilakaera hori erregaien eta lubrifikatzaileen garestitzeak eta elektrizitatearen prezioen igoerak eragin zuten. Halaber, azpiko inflazioa hiru hamarren hazi zen, %2,5etik %2,8ra.



Merkataritzako salmentak %0,7 hazi ziren

Merkataritza indizea

Urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoa



Iturria: Eustat.


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, EAEko merkataritza sektoreko salmentak %0,7 gehitu ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Era berean, sektore horren enpleguak ere bilakaera positiboa erakutsi zuen eta %2,1eko hazkundea eskuratu zuen.

I+Gan eginiko gastua 2.000 milioitik gorakoa izan da

EAEn eginiko gastua I+Gan

Urte bakoitzeko urtarriletik abendura. Milioiak



Iturria: Eustat.

Euskadiko I+Gko gastua 2.000 milioi eurotik gorakoa izan zen 2023an. Zehatz-mehatz adierazita, zifra hori 2.002,8 milioi eurokoa izan zen, eta, beraz, %11,6 igo zen 2022ko kopuruaren aldean. Hau da, 208 milioi euro gehiago gastatu ziren aurreko urtean baino.